

**Mozioa, motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei laguntzeko, biktima horien erreparazioa eta aitortpena tramitatzeko, uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzen duen apirilaren 4ko 5/2019 Legean oinarrituta.**

Egiari Zor Fundazioak honako proposamen hau aurkezten dio Zaldibiako Osoko Bilkurari, eztabaidatu eta bozka dezan:

## **MOZIOA**

### **Zioen azalpena**

Egiari Zor Fundazioa 2012. urteaz geroztik ari da lanean Estatuak eragindako edo sustatutako indarkeriak jasan dituzten biktimen eskubideen alde. Fundazioa osatzen dute erailak izan ziren pertsonen senitartekoez, eta zaurituak edo torturatuak izan ziren pertsonak.

2019ko irailaren 27an epea zabaldu zen giza eskubideen urraketan biktimak apirilaren 4ko 5/2019 Legearen babespean aitortzeko eskaerak aurkezteko. Lege horrek aldatu egin zuen uztailaren 28ko 12/2016 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan 1979 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasandako biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Legearen helburua honakoa da: funtzionario publikoek beren eginkizunetan edo beren eginkizunetatik kanpo eragindako giza eskubideen urraketan biktimak aitortzea; taldean edo modu isolatuan, indibidualki eta kontrolik gabe jarduten zuten partikularrek eragindako eskubide urraketak aitortzea; eta, urraketa horien ondorioz, pertsonen bizitzan edo osotasun fisiko, psikiko, moral edo sexuarean izandako eraginak aitortzea.

Laburki esanda, Legearen bidez aitortza jaso dezakete 1979tik 1999ra bitartean estamentu ofizialek praktikara eramandako edo sustatutako biolentziek EAEn eraildako, torturatutako edo larriki zauritutako pertsonak (edo urraketaren unean EAEn bizi zirenek).

Ehunka dira, milaka ziurrenik, denbora tarte horretan Estatuak praktikara eramandako giza eskubideen urraketak jasan zituzten pertsonak, eta aipatu legearen babesean aitortuak izateko egin beharreko kudeaketa ez da erraza.

Biktima izaera aitortzeko eskaera egiten duten pertsonak eskabidea aurkeztu behar dute. Hori euskadi.eus atarian elektronikoki bete dezakete, edo, bestela, eskabide-eredu normalizatua egoitza elektronikoko horretan bertan deskargatu eta Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzuko edozein bulegotan aurkeztu.

Eskaera horretan, giza eskubideen urraketa gertatu zen testuinguruaren deskribapena jaso behar da, eta biktima-izaera frogatzeko garrantzitsutzat jotzen diren txosten, ziurtagiri eta dokumentuak erantsi behar zaizkio. Hala ere, dokumentaziorik ez badago, inolako arazorik gabe egin daiteke eskaera.

Egia Zor Fundazioa prest dago behar duen orori izapideak egiten laguntzeko. Horretarako, nahikoa da harremanetan jartzea [info@egiarizor.eus](mailto:info@egiarizor.eus) helbide elektronikora idatziz edo 944 045 363 telefonora deituz.

Berebiziko garrantzia du Euskal Herriko indarkeria testuinguruan gertatu diren giza eskubideen urraketa guztiak erabat aitortzeko bidean aurrera egiten jarraitzeak. Estatuak eragindako tragediaren inguruko egia osoa aitortzea, ezagutzea eta ezagutzera ematea ere ezinbestekoa da, bermatzeko giza eskubideen urraketan biktima bat bera ere ez dela geratuko dagokion babesik eta aitortzarik gabe.

Horregatik guztiagatik, Egiari Zor Fundazioak honako mozio hau onartzeko eskatzen dio Zaldibiako Osoko Bilkurari:

1. Zaldibiako Udalak aitortza adierazten die Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan zituzten biktimei, eta egokitzat jotzen du 5/2019 Legeak eskainiko dien erreparazioa, biktima horiek duten egia, justizia eta memoriarako eskubideak egikaritzeko urrats garrantzitsua izanik.
2. Era berean, Zaldibiako Udalak animatzen ditu giza eskubideen urraketan biktima gisara errekonozimendua eta erreparazioa jasotzeko eskaera aurkezteko borondatea duten udalerriko pertsonak prozedura hori martxan jartzeko eskabidea aurkeztera. Horrez gain, hori posible izan dadin, pertsona horiei aholkularitza eta laguntza emateko konpromisoa ere hartzen du Udalak.

3. Zaldibiako Udalak jendaurrean jakinaraziko du hartutako erabakia, dituen ohiko komunikazio-bideak erabiliz, eskaera prozedurak abiatzeko interesa izan dezakeen pertsona oro informatuta egon dadin dagozkion eskubideen inguruan.

Zaldibian, 2020ko urriaren 29an